

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2026 000004510

Espediente-zenbakia: 2026/IDA_ERA_0061**Xedea**

Alkartasuna Dantza taldeko 2026 urteko plangintza aurrera eramateko,
Alkartasuna dantza taldearekin zuzeneko dirulaguntza bideratzeko hitzarmena
sinatzea eta gastua onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalak, 2026ko urtarrilaren 29an izandako Osoko
Bilkuran, udalak eskaintzen dituen dirulaguntzen 2026-2028 urteetarako
Plangintza Estrategikoa onartu du.

Bigarrena: 2026 urteko aurrekontuan, Alkartasuna Dantza Taldea elkartearen
aldeko dirulaguntza nominatiboa jasotzen da, 2. ardatz estrategikoaren barruan
(Bermeo bizia). Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 28.1 artikularen
arabera, dirulaguntza nominatiboak bideratzeko hitzarmena sinatu behar da.

Hirugarrena: Alkartasuna dantza taldearen programarekin lortu nahi diren
helburuak, gure herriko kultura, nortasuna eta jaien zabalkundea sustatzea;
Euskal folklorea eta kultura zabaltzeko izaera publikoko ekintzen garapena eta
presentzia lortzea eta sorkuntza eta zabalkunde artistikoa bultzatzea dira.

Laugarrena: Honez gain, Alkartasuna Dantza taldeak udalarekin batera euskal
folklorea bultzatzeko programa dauka eta 2026 urtean egiteko programa berezi
bat, taldearen 50. urteurrena dela kontuan izanda.

Bosgarrena: 2026ko martxoaren 23an, Kulturako teknikariak justifikatze
memoria egin du.

Seigarrena: 2026ko apirilaren 30ean, Idazkaritzako AOT-k txosten juridikoa
egin du.

Zazpigarrena: 2026ko maiatzaren 22an, Kultura teknikariak justifikatze memoria
eta hitzarmena zuzendu ditu, Kontuhartzaileak adierazitako oharrarekin.

Sinadurea eta dataNADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 05/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 05/06/2026 10:04:54

EXPEDIENTE ::

2026IDA_ERA_0061

Data: 23/03/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia



Zortzigarrena: 2026ko maiatzaren 26an, Kontuhartzaileak 46/2026 zenbakidun aldeko fiskalizazio txostena egin du.

Argudioak

Lehenengoa: Gastuak, beharrezko atxikipena dauka (RC 2026/000247)

Bigarrena: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen duen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Orokorra onartzen duen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, bere 28.1 artikuluan, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak bere 6. artikuluan eta Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen duen 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengokoetan xedatutakoak hartu dira kontutan.

Hirugarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legearen 21.1. artikuluan f) eta s) ataletan jasotakoaren arabera, alkateari dagokio baina 2026ko otsailaren 26ko 1131. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

Hala ere, alkartasuna dantza taldeagaz hitzarmena sinatzeko premiasuna dela eta, ahalmen hori abokatu beharra ikusi da alkateak zuzenki erroteko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 10. artikuluan arabera.

Erabakia

Goian aitatuko guztia kontuan hartuta, honako hau erabaki dut:

LEHENENGOA: Tokiko Gobernu Batzarrari 2026ko otsailaren 26ko 1131 zenbakidun Alkatetza dekretuz delegatutako hitzarmenak sinatzeko ahalmena abokatzea eta ahalmen hori alkateak egikaritzea, Alkartasuna dantza taldeagaz Hitzarmena sinatzeko soilik eta kasu konkretu horretarako, Sektore



Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 10.artikuluak aurreikusten duenaren arabera.

BIGARRENA Alkartasuna Dantza taldearen 2026 urteko plangintza aurrera eramateko, Alkartasuna Dantza Taldearekin hitzarmena sinatzea onartzea.

HIRUGARRENA aurrekontuko 00400-33410-481.01.06 partida ekonomikoaren pentzura, Alkartasuna Dantza Taldeari 12.000 €-ko gastua onartzea eta esleitzea (AD), hitzarmenean agertzen den programako gastuentzat.

LAUGARRENA: Ordaintzeko modua honakoa izango da: hitzarmena sinatu ondoren, zenbatekoaren %80a, hau da, 9.600 € (O) eta %20a, hau da, 2.400 €, dirulaguntza behar den moduan justifikatu ondoren.

BOSGARRENA: Euskararen ordenantzak xedatzen dituen kultura, kirol, aisialdi elkarte, musika talde eta bestelakoei dirulaguntzak emateko baldintzak bete behar ditu dirulaguntzaren jasotzaileak.

SEIGARRENA: Interesdunari erabakiaren berri ematea, hitzarmena sinatu dezan.

ZAZPIGARRENA: Erabaki honen berri Idazkaritza, Ekonomia, Kontabilitate eta Diruzaintza sailei jakinaraztea.

ZORTZIGARRENA: Dirulaguntza honen publizitatea Bermeoko Udalaren web gunean txertatzeko agindua ematea Berrikuntza Sailari.

BEDERATZIGARRENA: Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzeko agindua ematea Kultura eta Hezkuntza Sailari.

HAMARGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .

